



AZKEN ORDUKOA

Santi Arrozpide aske uzteko agindu du Auzitegi Nazionalak

Auzitegi Nazionaleko Zigor Aretoko lehen sekzioak onartu egin zuen asteartean Santi Arrozpideri Frantzia preso egin zituen espetxe urteak kontutan hartzea. Ondorioz, herritarra aske uzteko agindu zuen atzo Madrilgo epaitegiak. Denera 27 urte egin ditu preso. Berria jakin bezain pronto, senide eta lagunak kotxea hartu eta Villenako espetxera (Alacant) abiatu ziren haren bila.

4 EUSKARA

Kirol jardueretan euskara bultzatzeko hitzarmena

'Guk kirola euskaraz' hitzarmena sinatu zuten asteazken arratsaldean Lasarte-Oriako Udaleko Euskara sailak eta herriko kirol elkarteek. Hitzarmenaren leloarekin bat egin dute Intza, Ostadar SKT, Texas, LOKE eta herriko ikastetxeetako guraso elkarteetako ordezkariak. Aurtengo ikasturtean hizkuntzaren diagnosi bat egiteko konpromisoa hartu zuten kirol taldeek, asteazken arratsaldean egindako ekitaldian.



Giza eskubideen eguna abenduaren 10ean Ekitaldia antolatu du Lasarte-Oriako Udalak, Manuel Lekuonan



Lasarte-Oriako Udalak erabaki du ordezkariak ez azaltzea datorren asteazkeneko ekitaldia iragartzeko argazkian, ekimen hori "ez politizatze" asmoz.

Giza Eskubideen Nazioarteko eguna izango da datorren asteazkenekoa. Horren harira, ekitaldia antolatu du Udalak, Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan, arratsaldeko zazpitan. "Hiru urte" daramatza lanean Udalak herritarrek 1936tik gaur egunera arte jasandako giza eskubideen urraketak aztertzen, hainbat elkarterekin elkarlanean. "Ikerketa eta identifikazio fasea sozializatu" egingo dute ekitaldi horretan.

Albiste honen argazkian ikusi daiteke zein itxura edukiko duen kultur etxeko auditorioak, abenduaren 10eko ekitaldian. Aulki eta butaka horietan eseriko dira herriko Islada Ezkutatuak, Euskal Memoria fundazioa eta BakEtik elkarteak.

Maidar Segurola herritarra egingo ditu aurkezle lanak, eta hiru elkarte horiek elkarriketatu dituzte.

Hiru urteko lana

Lasarte-Oriako Udalak antolatu du datorren asteazkeneko

ekitaldia. "1936tik gaur egunera arte giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritar guztiak" identifikatzeko lanean ari da Udala, Islada Ezkutatuak taldea eta Euskal Memoria fundazioarekin elkarlanean. "Hiru urte" daramatza zeregin horretan Udalak, eta ekitaldia antolatu du, epe horretan egindako "identifikazio eta ikerketa lanak sozializatzeko".

Bestela esanda, bi talde horiek orain arte egin duten lana nola burutu duten azalduko diete herritarrei.

Hiru bloke

Sei ekitaldik osatzen dute guztira Giza Eskubideen eguneko ekitaldiko egitaraua. Hiru bloke egin dituzte, elkarre bakoitza ikertzen ari den aro historikoaren arabera banatutakoak.

Bloke horietako bakoitza elkarriketa batek eta ikusizun batek osatuko dute.

Lehenengo blokea 1936ko Gerra Zibila eta guda ondorengo urteei buruzkoa izango da. Islada Ezkutatuak herriko taldea ari da garai historiko hori ikertzen eta herritarrek identifikatzeko lanetan. Orain arte egindakoari buruz ariko dira, Maidar Segurolarekin. Elkarriketa bukatzean, Joseba Tapia musikariak emanaldia eskainiko du, 'Gerra Zibileko kantuek' izenekoak.

Bigarren blokean Euskal Memoria fundazioa izango da elkarriketatua. Udalak hala eskatuta, "1960 eta 2014. urte

bitartean jatorri anitzeko indarkeria politikoak eragindako ondorioen bilduma" egin du fundazio horrek, Udalak berak azaldu bezala. Elkarriketa bukatu eta gero Joxemari Carrere ipuin kontalaria "gertuko historiaren inguruan" eskainiko du emanaldia.

BakEtik elkarteak da Udalaren bizikidetzaren proiektuaren arduraduna, eta egiten ari den lana azalduko du hirugarren eta azken blokean. Horren ostean, Kukai elkarteak dantza garaikide ikuskizuna taularatuko du eszenatokian.

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du "giza eskubideen urraketak jasan eta identifikatuta dauden herritar guztiak" luzatu diela gonbidapena gutun bidez. Era berean, alderdi politiko guztiak ere gonbidatzen ditu abenduaren 10eko ekitaldira, eta baita herritar guztiak ere.

EUROMIKEL'S, S.L.



N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com



Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI
ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen,
zergatik hainbeste ordaindu?

Hiru aukera dituzu:
zuk egiten duzu
zuk gurekin ikasiz
guk egiten dugu

DEITU ETA ESKATU PREZIOAK
KONPROMEZURIK GABE

Neure kabuz



Asier Odriozola

Euskara edo ez gara?

Joan berria da Euskararen Nazioarteko Eguna. Nazioarteko egunek izan ohi duten argi eta dizdira hartu du aurten ere euskararenak eta urtero legez, gainerako Nazioarteko Egunekin gertatzen den bezala, hori egia da, pixkanaka itzali egingo dira su artifizialak.

Gizakiok, eta gizaki garen neurrian euskaldunok berdin, badugu euforia momentuetarako joera. Egokitzen denean, hala tokatzen denean, zainak puztuko zaizkigu, giharrak tenkatuko eta ozen hitzegingo dugu pobreziaren kontra, berdintasunaren alde, politikoenganako irainetan edo euskararen salbaziorako edozertarako prest. Bi ardo edo hiru zurito edaten ditugunean sortzen zaigun ahalmen sentsazioa ekartzen dit gogora horrek. Baita futbol talde batek, Barsaren edo Madrilén aurkako lehian, duena eta ez duena eman eta garaipena lortzen dueneko aldi bakarren bat ere.

Baina jarri ditudan adibide ale horiek bakanegiak dira, aldika aldika egiten diren balentria hutsalak gehienetan.

Onartu behar dut ni neu ere bizitzan gauzak kolpeka egiten dituen horietakoa naizela eta horregatik badakit zertaz ari naizen. Jarrerarik errazena da, ez egokiena baina batek nekez egin dezake bere berezkotasunetik haruntzako biderik.

Nahiz jakin eta onartu hobe nukeela, hobe genukeela egunero saiatu berdin kirol dematan, pobreziari erantzun bat ematen edo bete betean euskaraz bizitzten. Aitzakia asko jarri ohi dugu baina ez dezagun geure burua engaina: jarrera kontua da. Beraz, eta orain hitzetik hortzera darabilgun adierazpide bat erabiliz... GURE ESKU DAGO!!!

Zorion agurrak



Josu

Zorionak zure bosgarren urtebetetzean eta muxu handi bat etxekoan partetik!



Aritz

Zorionak guapo zure ZAZPI urtebetetzean! Muxuk, aita, ama eta Eneko.



Libe eta Amaur

Txokolatezko muxu txiki BAT eta marrubizko ZAZPI muxu handi etxeko bihurrientzat. Ondo pasa!!!



Lander

6 urte dituzu jada, Zorionak! Mila muxu familiaren partez.



Jose Luis

Zorionak!!! zure lagunen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza 5ean. 600 414 331
- Garaje marra alokatzen dut Urbarten. Merke. 648 61 47 69.
- Tableta salgai. Nevir marka, android 4.1 sistema. GPU 512MB / RAM 4GB. 680 98 35 27
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusian, Maxi Dia inguruan. 60 euro 943 57 59 64
- Umeentzako kotxe kapota Jane Slalom Bainera bat eta Mendira joateko motxila 637 05 63 54
- Etxea alokatzen dut San Martzial kalean, Tximistarreta parean. Prezioa negoziatzeko. 677 86 36 42

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzen, etxean edo kanpoan lan egiteko prest. Badauzkat paperak. 674 59 80 99.
- Pertsona arduratsua eskaitzen da lan egiteko. Esperientzia zabala adinekoen eta gaixoen zainketan. Hasteko prest 680 98 35 27

- Edadeko jendea zaintzeko prest eguneko 24 orduetan. Paperak eta esperientzia. 645 78 72 72.
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia frutadendan, pintaketetan, nagusiak zaintzen, nekazaritzan. 609 34 44 28
- Lana bila nagusien zaintzan. Paperak egunetan eta esperientziarekin. 602 59 67 35 Jenny
- Interna edo externa moduan garbiketara edota zaintza lanak egiteko prest. 639 41 22 33

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48

Lan-eskaintza

- Urtarriletik maiatzarte Urdaira sagardotegian sukaldarako edo zerbitzari lanetako emakumezko edo gizonezkoak behar dira. 619 40 36 91

Bestelakoak

- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta argitsua da, zentroan bizi naiz. Hilabetean 300 euro. Pilar 647 88 42 78.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Amets Sanchez Cuesta azaroaren 27a.



Heriotzak

- Tomas Martin Gascon azaroaren 29ean, 80 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 5	De Miguel Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 6	Orue Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 7	Orue Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 8	Orue Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 9	Rodriguez Kale Nagusia 42	943 361774
Asteazkena, 10	Gil Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 11	Gandarias-Urbe Iñigo de Loyola 9	943 019521

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri I I,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

GABONAK

Errege kabalgata prestatzen

Megabak boluntarioak behar ditu urtarrilaren 5erako

Megaba elkarteko kideak lanean ari dira urtarrilaren 5eko errege kabalgata prestatzen. Dagoneko martxan jarri dute marrazki lehiaketa eta boluntarioak behar dituzte egun horretan antolakuntzan laguntzeko.



Errege kabalgatak jende andana erakartzen du urtetik urtera.

TXINTXARRI

Megaba elkarteak sortu zuen herritar talde batek urtero urtarrilaren 5ean Erregeen kabalgata antolatzen. Azken urteetan karroza berria erosi eta Erregeen etorrera ekitaldian berrikuntzak txertatzeko lana egin nahi izan dute. "Ahalik eta kabalgata erakargarriena egiten saiatzen ari gara urtetik urtera herritarrek Lasarte-Orian gera daitezten Errege bezperako egun horretan".

Hala ere, elkarteko kideak gutxi dira eta "egin beharreko lana asko". Finantziazio iturriak bilatu behar dituzte, izan ere, "Udaletik jasotzen den laguntza ez da nahikoa". "Herriko denda eta tabernek hitz egiten ari gara ea zerbait jarri dezaketen, ez du zertan dirua izan behar, batzuk prest azaldu dira goxokiak emateko, marrazki lehiaketako sariak...

oso lagungarria zaigu edozein motatako laguntza. Hala ere, denez denda joateko ere, beste kudeaketa lanak egiteko bezala, gutxi gara eta jende gehiagoren beharra somatzen dugu".

Finantziazioaren oztopoaz gain, urtarrilaren 5ean asko da egin beharreko lana eta elkarrekin ez dauka nahikoa jende. "Lan karga handia hartu behar dugu bazkideek eta jende gehiago edukita, azkarragoa eta errazago litzateke muntatze eta desmuntatze lana adibidez".

200 bat pertsona dira guztira Errege Magoen etorreraren parte hartzen dutenak.

Marrazki lehiaketa

laz bezala marrazki lehiaketa antolatu du Megabak. Irabazleen artean bat hautatuko da kabalgata iragarriko duen kartela osatzeko. Marrazketa

lehiaketan parte hartzeko azken eguna abenduaren 19a izango da eta marrazkia Manuel Lekuonan jarri den postontzi berezian utzi beharko da.

Gaia "Errege Magoak" dira eta adinaren arabera hiru taldeetan banatuko dira marrazkiak: hiru eta sei urte artekoak, zazpi eta bederatzi urte bitartekoak eta hamar eta hamabi urte artekoak. Ume bakoitzak marrazki bakarra aurkez dezake A4 tamainan eta honetan, atzeko aldean, haurraren izen abizena eta adina jasoko da, baita aita, ama edo tutore legalaren datu pertsonalak, izen abizenak, helbidea, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoa helbidea. Oinarriak www.megaba.es".

Laguntzeko prest dauden herritarrek 649 51 31 02 zenbakira deitu dezakete edo info@megaba.es helbidera idatzi.

GAZTEAK

Gabonak girotzeko ekintzak gaztetxoekin

Amaraun klubekoak Olentzeroren etxera joango dira Abenduaren 22an, 10:30etatik 17:00ak arte. Irteera 2007, 2008, 2009 eta 2010ean jaiotakoentzat dago prestatuta. Hamaiketako eta bazkaria eraman behar dituzte gaztetxoek eta Zaharren egoitza aurrean egin dute hitzordua. Prezioa 26 eurokoa da; Ttakuneko bazkideek 23 ordaindu beharko dituzte.

Gazte klubekoak berriz, LH3-LH6koak, BEC-era joango dira Gabonetako Parkera abenduaren 30ean, 9:30etatik 18:30ak arte. Bazkaria eta merienda eraman behar dituzte. Irteera honen prezioa 24 eurokoa da, 21 Ttakuneko bazkideentzat.

Bi irteerarako izena eman daiteke 943 371448 telefonon, e-mailez aisia@ttakun.com helbidean edo Ttakunen bulegoan bertan. Ordainketak bulegoan eskuz edo txartelarekin edota transferentziaz ere egin daitezke 2095 5048 18 1061552351 kontu-zenbakian.

KULTURA

Antxon Aguirre Sorondok irabazi du Manuel Lekuona saria

Antxon Aguirre Sorondo etnografoari (1946-2014) eman dio Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria. Herritarren bozkekin eta zientzia alorreko sei erakundek osatutako epaimahaia- ren bozkekin erabaki da aurtengo saritua, lehen aldiz. Aguirre Sorondok "lan itzela" egin zuela aipatu du epaimahaia.

ELKARTASUNA

Jostailu bilketa egingo du PSE-EEk

Lasarte-Oriako PSE-EEk jostailu bilketa solidario bat egingo du abenduaren 9an hasi eta 19ra arte. Jostailu horiek behar gehien dituzten herritarrentzat izango dira. Jostailu bilketa horretan ekarpenen bat egin nahi duen orok aipatutako egunetan joan beharko du PSE-EEk Lasarte-Orian duen egoitzara, arratsaldeko sei etatik zortzietara bitartean. Bertan egongo dira talde sozialistako eta komite lokaleko kideak, jostailu bilketa egiten.

Parte hartzen duten herritarrek boleto bat jasoko dute, eta bizikleta baten zozketan sartuko dira. Gabonetako loteria sariko azken bi zenbaki berberak dituen boletoaren jabea izango da irabazlea. Jostailuak biltzen amaitu ostean, PSE-EEk Lasarte-Oriako Caritas elkarteari emango dizkio, haiek herritarren artean banatu ditzaten jostailu horiek.

EHBilduk balorazio inkesta egingo du

Hurrengo udal hauteskundeetarako EHBilduk "apustu garrantzitsua egin du: prozesu parte hartzaile, garden, arduratsu eta ireki bat gauzatzeari; orain artean eginiko lana baloratu, udalerriko egungo egoeraren diagnostiko bat burutu eta herritarren parte hartzearekin hauteskundeetarako programa eta zerrenda zabal batzuk osatzeari". Guztia datozen hilabeteetan landuko dute lau fase ezberdinetan.

Urrian egin zen plaza irekian hasitako bidean, balorazio faseari ekin dio EHBilduk. Honetan, "ahalik eta balorazio zabal eta zintzoena egiteko herritarren artean 1000 inkesta egiteko ekimena jarri dugu martxan".

Inkestan, azken hiru urtetan udal kudeaketan erakutsitako "gertutasuna, gardentasuna eta parte-hartzea bezalako baloreen lanaketaren inguruan galdetzen dugu. Bestetik, udal baliabide ekonomiko eta pertsonalak



Urrian egin zuen EHBilduk Plaza Irekia Manuel Lekuonan.

xahutu gabe eta modu arduratsuan erabili ditugun, proiektu berritzaileak aurrera eraman ditugun eta azkenik ea modu zabalean alderdikeriarik gabe jokatzaren aritu garen galdetzen dugu".

Horrela, herritarren iritziak zeintzuk diren jakin nahi da. "Ondoren, autokritika egin eta etorkizunean hobetzeko".

EHBilduk beharrezkoa ikusten du "herritarren parte-hartzearen bitartez eta modu ireki batean lan egitea, gainontzeko alderdi politikoen-gandik ezberdinak eta benetan herritar oinarria duen

aukera politiko bat izan nahi badugu". Horretarako, programa eta hautagaiak udalerriko herritarren artean aukeratu behar dituztela uste dute, "gure helburua, jokaera eredugarria izan eta koalizioaren barruan, orain artean Udaletxean egiten saiatu garen bezala, gardentasuna lantzea baita".

Inkesta egin nahi duten herritarrek sarean dute aukera "lasarte-oria.ehbildu.eus/helbidetik jaitsi, bete, gutun-azal batean sartu eta Udaletxe zaharreko bigarren solairuan utzi dezakete herritarrek".

Oroimenaren ibilbidea

Dozenaka herritar hurbildu ziren Islada Ezkutatuak taldeak joan den larunbatean antolatutako ibilbide historikora. Ordu eta erdiko ibilaldia izan zen, Lasarte-Oriako erdigunean barrena.

Herritarrek Mailu Arruti, Mikel Amenabar eta Josu Agirretxe Islada Ezkutatuak taldeko kideen eskutik entzun zituzten azalpenak; gogora ekarri zuten zer nolakoak ziren gune horiek 1936an, Gerra Zibilaren garaian. Ibilaldian zehar herritarrek galdarak egin zituzten.

Ibilbidean, fusilamenduak izan zirela gogoratu, guda

lekuak zein izan ziren adierazi eta bando errepublikanoko kuartelak eta militarren aginte lekuak kokatu zituzten, besteak beste.

"Ezer gutxi idatzi da gerrak Lasarte-Orian eragin zuen sufrimenduaz. Badirudi gerra ez zela hemendik igaro, eta ez da egia. 1936ko estatu kolpe frankistatik orain arte, Euskal Herrian gertatutako triskantza sozial baten lekuko mutuak izan dira leku hauek. Aurrerantzean testigu bizi izatea nahi dugu, hitz bakoitzak bere benetako zentzua berreskuratzeko", esan zuten Islada Ezkutatuak taldekoek.



"Guk Kirola euskaraz"

Herriko kirol taldeekin hitzarmena sinatu du udalak hauen egunerokoan euskara bultzatzeko

Lasarte-Oriako udaleko euskara sailak hitzarmena sinatu du herriko kirol elkarteekin. "Guk kirola euskaraz" leloarekin bat egin dute Intza, Ostadar SKT, Texas Lasartearra, LOKE eta herriko hiru ikastetxeetako guraso elkarteek. Honen bitartez euskara sustatzeko konpromisoa hartu dute kirol taldeek eta ikasturte honetan besteak beste, hizkuntzaren diagnostia egingo dute. Euskararen egunean egin nahi izan zuten hitzarmenaren sinadura ekitaldia eta honetan kirolari gazteen babesa ere izan zuten.

TXINTXARRI

Euskararekin konpromisoa adierazi zuten asteazkean Euskararen Nazioarteko Egunean, herriko kirol elkarteek Udalarekin sinaturako hitzarmenaren bidez.

Intza, Ostadar SKT, Texas, LOKE eta herriko hiru ikastetxeetako kirol taldeetako ordezkariak adostuta, kirolariak euren kamisetetan "Guk kirola euskaraz" leloa eramango dute hemendik aurrera. Elkarteek egiten dituzten karteletan, kirol ekipamendu ezberdinetan eta dokumentuetan jarri beharko dute hau ere.

Hitzarmenaren bidez har-

tutako beste konpromisoen artean, herriko kirol elkarteek Euskara sailarekin ikasturte honetan hizkuntza diagnostia egingo dute. Honekin euren eguneroko lanean hizkuntzak duen presentzia neurtuko da eta azkenean, horren emaitzen arabera, 2015-2016 ikasturtean euskara euren eguneroko lanean bultzatu eta sustatzeko helburuak, lan ildoak eta konpromisoak zehaztuko dituzte.

Trukean, lankidetzaz hitzarmen horiengatik, Lasarte-Oriako Udalak 2014. urtean diru-kopuru bana emango die herrian kirol-jarduerak antolatzeko diru-laguntzak eskatu dituzten aipatutako elkartei.



Herriko kirol-talde eta guraso elkarteetako kideak, udal-ordezkariek eta kirolari gazteak asteazkeneko sinadura-ekitaldian.

Taxio Arrizabalaga kirol arloko zinegotziak eta Boris Nogales Euskarakoak azpimarratu zuten agerraldian hitzarmen honen garrantzia. Biek aipatu zuten, "asko dira kirol talde hauetan

dabiltzan herritarrak eta hitzarmenak euskararen presentzia bermatu eta sustatzeko bidea zabaltzen du". Udaletik, euskararen normalkuntzan pauso garrantzitsua dela ere aipatu zuten.

Euskara eta kirola batzen dituen hitzarmenaren aurkezpenean egin ostean, Pablo Barrio alkateak banan-bana sinatu zituen Michelinen bertan hitzarmenak kirol taldeen ordezkariak.

"Euskara bultzatzeko hitzarmena"

Kirol taldeetako ordezkariak pozik azaltzen ziren hitzarmen berri honekin. Izan ere, bi lan ildotan laguntzen du.

Batetik, euren jardunean euskara bultzatzeko, eta euskararen presentzia handitzeko laguntza izango dutelako eta bestetik, azken urteetan, araudi aldaketa bat medio, jaso ezin izan dituzten diru laguntzak eskuratzeko bidea zabaltzen duelako.

"Udalarekin sinatutako hitzarmen honetan desberdindu behar diren bi ideia nabarmendu nahi ditugu: batetik, kirol elkartearen bitar-

tez hitzarmenak kirol arloan euskara sustatzen du. Bestetik, hitzarmenak kirol elkartei 2012tik jaso gabe dituzten diru-laguntzak kobratzea ahalbidetzen die, hau da, hiru urtetako diru-laguntzak" aipatzen zuen Ostadar SKT-ko lehendakari Imanol Bardajik.

"Ostadar SKT-n betidanik bultzatu dugu gure hizkuntza, gure kultura. Hitzarmenak gure filosofia berresten du".

Guraso elkarteentzat ere eskola kirola euskaraz egiten den ekintza izaki, "konpromiso honek beste urrats bat



Aurrerantzean euren taldeetako elastikoek izango duten itxura erakutsi zuten.

ematea suposatzen du". Euskararen erabileran bultzada garrantzitsua ematera dator batez ere, gaztetxoaren alorrean, uste baino lan gehiago

geratzen delako oraindik egiteko.

"Oso positibotzat" jo zuten hitzarmena Intzako Jose Felix Solanok eta

LOKEko Amaia Andresek ere. Guztien erronka lelotik haratago egunerokoan euskara txertatzea izango da hemendik aurrera.

leima
Antenas S.L.

**ANTENA KOLEKTIBOetan
INSTALAZIOA, MANTENUA eta
KONPONKETA**

Zatoz eta galdetu !

Hipodromo 6 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247034
leimalasarte@euskalnet.net

**ZURE KOMUNITATEA,
DIVIDENDU DIGITALERA
EGOKITZEN DUGU!**

MAITE

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

**Prezio berriak
fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU**

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pulsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Aterpea elkarteak Gabonetako kanpaina jarriko du martxan

Gabonetako argiak eta saskien zozketa dira ardatzak

Aterpeak bere Gabonetako kanpaina berria aurkeztu du. Gabonetako argiak jarrita daude jada kaleetan; gehiago jarri dituzte aurten, Pablo Mutiozabal kalean lehen aldiz. Bestalde, Aterpeak 28 komertziok saskiak zozketatuko dituzte.



Irudian, Aterpea merkataria eta ostalarien elkartereko kideak eta udal ordezkariak.

TXINTXARRI

Bi dira Aterpea merkataria eta ostalarien Gabonetako kanpainaren oinarriak: kaleetako argiak eta Gabonetako saskien banaketa. Argi gehiago jarri dituzte aurten Aterpeakok: Pablo Mutiozabal kalea ere apainduko dute argiek aurten. Lasarte-Oriako Udalaren laguntza izan du elkarteak, argiteria jartzerako orduan.

Bestalde, urtero legez, Aterpea osatzen duten komertzio eta dendek Gabonetako saskiak zozketatuko

dituzte bezeroen artean. 28 komertzio eta tabernak zozketatuko dituzte aurten saski horiek, bakoitzak bana. Herritarrek denda horietan erosketak egin ostean txartel batzuk jasoko dituzte. Txartel horiek bete eta kutxa batzuetan botako dituzte. Abenduaren 9an hasiko da saskien kanpaina, eta 30ean egingo da zozketa.

Herriko komertzioak argituz

"Lasarte-Oriako kaleak apaindu eta giroteaz gain, dendetako salmentak pizten dituzte

Gabonetako argiek", adierazi zuen Aterpeak kide Ramon Ormazabalek, asteazkenean egindako agerraldian.

Pablo Barrio alkateak adierazi zuen "alaitasuna" ematen diotela argiek herriari, eta "herritarrak herrian gera-tzeko pizgarria" dela.

Gabonetako saskien zozketari dagokionez, Barriok nabarmendu zuen herritarrek "ziurtatuta" daukatela "sari potolo bat", Aterpeak 28 denda horietan, eta "pozgarria" dela hori.

Gune berriak konpostarako



Zabaleta, Sasoeta eta Atsobakar auzoetan zeuden orain arte konposta gunek.

Iaz Sasoeta eta Atsobakarren bi etxola jarri ziren bertako bizilagunek auzo konposta egin ahal izateko. Orain Udalak azaldu duenez, bi etxola gehiago jarriko dira, bata Zapategi kalean eta bestea Basaundin. Bertan, 40 familielik parte hartu ahaliko dute.

Abenduan, erdialdeko eta Basaundiko bizilagunek taldean konposta egiteko aukera izango dute Udalak jakitera eman duenez. Etxeko janari eta landare hondakinak egurrezko etxola batean bilduko dira. Hondakinen prozesu naturala jarraituz, hondakina konposta deituriko ongarri bilakatuko da. Parte-hartzaileei trebakuntza saioa eman-go zaie konposta nola egin

azaltzeko eta Udalak esperimentziaren jarraipena egingo du.

Etzoletatik gertuko gunetako etxe guztietara diptiko informatiboa banatuko da eta atarietan informazio kartela jarriko da. Izena emateko bi aukera egongo dira. Atarietako karteletan izena emanda edota bertan azaltzen den 943 67 02 49 telefono zenbakira deituta.

Informazio gehiago emateko bi bilera egingo dira Manuel Lekuonan, abenduaren 9an eta 11ean. Biak 19:00etan izango dira baina 9koa euskaraz eta 11koa gaztelaz. Herritarrak hauetan parte hartzea deitzen dituzte Udaletik.



✓ Etxebizitzak **185.000 €-tik aurrera**, terrazekin eta Santa Barbararako bista inbidiagarriekin.

✓ Erabateko pertsonalizazioarekin!



Kutxabank-en erakundearen finantzaketarekin

k kutxabank

www.zabaletaberri.es

943 36 89 42

LABURRAK..

LOKEko judokek zazpi domina lortu dituzte Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan

Gorka Aristegiren neska-mutilak fin dabilta denboraldi hasiera honetan. Azken bi asteetan domina sorta ederra erdietsi dute, hilaren 23an Gipuzkoako Senior eta Infantil Txapelketetan eta joan den asteburuan Euskadiko Senior txapelketan.

LOKEko judokak taldeka aritu ziren, Hernanin, Gipuzkoako Senior eta Infantil txapelketetan eta denera brontzezko lau domina eskuratu zituzten. Josu Olmosek, Fermin Baldak, Esteban Martinezek eta Asier Sagastik brontzea lortu zuten eta Ion Arroyok ere txapelketan parte hartu zuen.

Bestalde, Landaberriko gaztetxoek eta Lasarte-Usurbil Institutuko mutilek ere brontzezko domina lortu zuten infantil mailan. Julen Espinosa, Jesus Curiel, Unai Posada, Yeray Mendibe, Eric Bermejo eta Alex Saleta judokek erdietsi zuten hirugarren postua. Ander Garrido eta Garikoitz Mena ere aritu ziren lehian.

Gasteizen egin zen Euskadiko senior txapelketan berriz, LOKEko judokek zilarrezko domina bat eta brontzezko bi kolkoratu zituzten. Asier Sagastik zilarra lortu zuen eta Josu Olmos eta Esteban Martinezek berriz, brontzea. Fermin Baldak ere parte-hartu zuen.

Gorka Aristegi entrenatzailea txapelketetako emaitzekin baka-rriz ez, erakutsitako judo mailarekin zegoen benetan gustora balorazioa egiterako garaian. Hurrengo hitzordua Valladoliden dute LOKEko judokek, Espainiako Kopako jardunaldian arituko dira asteburuan Ander Garrido, Yeray Mendibe eta Alex Saleta.



Hemezortzi herritarrek amaitu dute Donostiako Maratoia

Izena emanda herriko ia 30 atleta bazeuden ere, hemezortzi korrikalarik soilik lortu zuten igandean atletismoaren distantzia mitikoa osatzea. Gizonezkoetan onena Andoni Illarramendi izan zen 2:44:50ko denborarekin eta emakumezkoetan Anabel Eleno, maratoia amaitu duen lasarteoriar bakar, 3:23:37 eginez.

Aipatzekoa Iraitz Arruabarrena mendi-lasterkariak estreineko maratoian hiru orduen langa jaistea lortu zuela (2:54:06) eta Julen Ollokiegi atleta zailduak 34 segundo krudelengatik ezin izan zuela gauza bera egin (3:00:34). Imanol Arteaga eta Xabier Carcedo ere ingurumari horretan ibili ziren, 3:01:48 eta 3:05:00 eginez hurrenez hurren. Aitor Otamendik Lasarte-Oria Bai!, New York Marathon, Behobia-Donostia eta Donostiako Maratoia



kateatu ditu, balentria handia eginez hilabete eskaseko epean. Jakina, hankek 'kitto' esan diote eta 3:08ko bere markatik urrun ibili zen 3:17:36ko denborarekin. Ramon Mendizabal eta Peio Fadriquek beste maratoi bat

gehitu dute euren zakura eta herritarren artetik azkena, baina Pedro Nimo (2:15:57) maratoiaren 37. edizioaren garailea bezain txapelduna dena, Sergio Rivera izan zen, 4:32:53 eginda.

Era berean, emakumezkoetan, Anabel Elenok 40 urtez gorakoen sailkapenean hirugarren postua erdietsi zuen bere lehen maratoian. Emakumezkoen elite mailan Veronica Perezek jaso zituen bi besoak 2:34:45eko denborarekin.

3x3 Saskibaloia txapelketa urtarrilean

Bigarren urtez jarraian, 3x3 txapelketa antolatu du Ostadarrek. Urtarrilaren 3an izango da, benjamin, alebin, infantil, kadete, junior eta senior mailetan. Izena emateko orriak Ostadarren Geltoki Kaleko egoitzan daude eta abenduaren 15a da apuntatzeko azken eguna. Taldearen inskripzioak 10 eurotako prezioa du eta iaz bezala, hiruko jaurtiketen lehiaketa ere izango da.

Villa Mirentxuko trinketea irekia izango da

Trinketea eraberritu eta ireki zenetik bere erabilera kiroldegiko abonatuentzako bakarrik mugatua egon da. Orain ordea, araudia aldatu egin da eta hemendik aurrera edonork erabil ahal izango du kiroldegiko ordutegiaren barruan. Hala ere, atea ez da kenduko kirol azpiegituraren egoera ona babesteko eta arriskutsua izan daitekeen puntu beltz bat bihurtu ez dadin. Beraz, erabili nahi duenak ate ondoan dagoen txirrina jo beharko du sartzeko.

ERRUGBIA..

Lana gogor egitearen saria

Beltzak taldeak buru-belarri jarritzen du oinarritzko errugbiaren alde urratsak ematen eta senior mailan fruituak jasotzen ari da

Seniorren garaipena Zarautzen, haurren topaketak Michelinen eta gazteen bidaia Durangora. Horixe izan daiteke Beltzak errugbi taldeak bizi izan zuen asteburuaren laburpena. Harrobiko lanaren fruituak ikusi ziren Astin, Xabi Prietok lehen entsegua egin baitzuen Ohorezko B mailan. Lana beltz egiteak baitakartza emaitza onak.



Dozenaka haur bildu ziren igandean Michelinen, Gipuzkoako Federazioaren topaketetan.

TXINTXARRI

1 6 eta 18 urtez azpiko Babyauto ZRT/Beltzak taldeek Durangora bidaiatu zuten asteburuan. Bi taldeek lehen zati apartak jokatu zituzten, baina bigarren zatian behera egin zuten nabarmen. Dena den, 16 urtez azpikoek lehen zatian lortutako entseguei esker 17-28 irabazi zuten Durangoren aurka. Ez ordea 18 urtez azpikoek, eta atsedenaldiran aldageletara 5-7ko emaitzarekin joan arren, neurketa galdu egin zuten durangarren aurka.

Igandean berriz, 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek Michelin kolorez bete dute. Ordizia, La Unica, Zarautz, La Rioja eta Beltzak taldeek goiz-pasa ederra egin zuten errugbian lehen urratsak emanaz.

Seniorrak, geldiezin

Asteburuari amaiera bikaina jarri ziotenak, seniorrak. Igande eguerdian A Coruña

Crat garaitu zuten Zarautzen 35-5eko emaitzaz, Ohorezko B mailako sailkapenaren goiko postuetan finkatzeko.


Galiziarrek joko azkarra eta mele indartsua erakutsi zituzten, baina Babyauto ZRT/Beltzak taldeak erakutsitako sendotasuna erabakigarria izan zen. Lehen zatian aurkariak hustu, indargabetu egin zituzten eta 56. minutuan entrenatzaileek lehen lerroan egindako aldaketen onurak berehala antzeman ziren.

Lasarteoriarrei dagokienez, hasieratik jokatu zuten Xabier Rekondok eta David Vegak. Unai Urruzola, Ander Rekondo eta Xabi Prieto bigarren zatian zelairatu ziren. Azken honek egin zuen partidako azken entsegua, Ohorezko B mailan Beltzaken harrobiko jokalaria batek egiten duen lehena izan zen gainera. Jakina, Lasarte-Oriatik Zarautzera joandako zaleen zoramena ikustekoa izan zen harmailetan.

Asteburuari begira

Larunbatean, 12:30etatik aurrera, Ligako neurketa garrantzitsuenetakoa jokatu dute lider doan Durangoren aurka. Lehen itzuliko azken partidua da, eta Babyauto ZRT/Beltzak bizkaitarrenandik puntu bakarrera daude sailkapenaren bigarren postuan.

Partidaren garrantzia kontutan hartuta, autobusa antolatu du klubak, Puertas eta Oribe prestatzaileen mutilak etxetik kanpo auzatzeko.



Xabi Prieto, pozarren.

MENDI DUATLOIA..

Endika Gartzia bigarren Lizarrako proban

Joan den igandean amaitu zen aurtengo Euskal Herriko mendi duatloi zirkuitua Lizarrako probarekin. Bertan Endika Izagirre herritarra bigarren sailkatu zen 1:29 denborarekin, Iñaki Letamendi 62. postuan sartu zen helmugan 2:12 denbora eginez eta hirugarren lasarteoriarra Amagoia Fdez. de Lezea izan zen 72. postuan, 2:37ko denborarekin. Amagoia Fdez de Lezea izan 25 urtez azpiko txapelduna emakumezkoetan.

Zirkuitua osatzen zuten 13 probetan lortutako puntuak batuta, sailkapen orokorrean Endika Gartzia izan zen lehen lasartearra 16. postuan. Kontutan hartu behar da denboraldiaren zati handiena lesionatuta egin duela Gartzia, besteak beste, pubalgiaekin.



Amagoia Fdez. de Lezea.

AGENDA..

FUTBOLA

Larunbata 6

Igartza, Beasain 12:30ean

Beasain SD - Ostadar SKT

Kadeteen Euskal Liga,

13. jardunaldia.

Igandea 7

Michelin, 10:00ean

Texas Lasartearra - Villabona KE

1. Erregional maila,

12. jardunaldia.

Michelin, 11:45ean

Ostadar SKT - Tolosa CF

Ohorezko Erregional maila,

13. jardunaldia.

— Agenda —

Gaur, Manuel Lekuonan 22:00etan



Giza Eskubideen zikloan 'Omar'

Hany Abu-Assad zuzendariaren 'Omar' filma ikusteko aukera izango da Okendo Zinema taldearen zine forumean. Udalak antolatutako Giza Eskubideen inguruko zikloaren bigarren filma izango da. Omar gazte palestinarra da drama honetan protagonista. Honek bere neska ikusteko lur okupatuak banatzen dituen harresiak gainditu behar ditu. Nazioarte mailan sari ezberdinak eskuratu ditu. Sarrera 4,70 euro.

Lasarte-Oria
Bertsolaritza
JALGI KAFE ANTZOKIA
Ostirala 5, 22:30ean
Earra! herriko bertso eskolak antolatutako bigarren bertso desafioa izango da. Herriko bertsolariak Hernaniko bertso eskolakoen aurkako lehia.

Zinea
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 12, 22:00etan
'Loreak' filma ikusteko aukera izango da Okendo Zinema taldearen zine forumean. Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako lanak hainbat sari eskuratu ditu Donostiako Zinemaldian aurkeztu zenetik. Euskaraz gaztelerazko azpitituluekin. Sarrera 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 13, 22:00etan
'Loreak' filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,90 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 14, 17:00etan
'Ninja turtles 3D' filma izango da haurrentzako zinema egitarauaren baitan. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 14, 19:30ean
'Loreak' filma ikusteko aukera izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,90 euro.

Ipuin-kontalaria
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 11, 18:00etan
Pello Añorgarekin ipuin kontalari saioa. 4 eta 5 urteko umeei zuzenduta egongo da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

Musika
BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala 12, 19:30ean
Danok Kidek antolatuta X.Musika Topaketen baitan, Añorgako Ertizka Otxotearen kontzertua izango da. Ramon Berazak zuzendutako taldeak euskal kanta tradizionalak abestuko ditu errepertorio klaskioaren ostean. Sarrera doan.

BRIGITARREN KOMENTUA
Igandea 14, 12:30ean
Alboka abesbatzaren emanaldiaz gozatu ahal izango da. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 17, 19:00etan
Udal Musika Eskolako ikasleen Gabonetako Kontzertua izango da.

Besteak
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 10, 19:00etan
Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna izanik, ekitaldi berezia antolatu du Udalak.

Erakusketa
JALGI KAFE ANTZOKIA
Abenduan zehar
El Estudio del Pintor-eko ikasleen margolanak ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 12tik 19ra 18:00etan
Xabier Amonarrizen "Egurra eta Torua" erakusketa.

— Herritarren txokoa —

Xirimiri Jaialdia
Abenduaren 13an Xirimiri elkarteak jaialdia antolatu du. 14:00etan Babarrunjana egingo da elkartean bertan. Bazkaldu ostean, Michelingo frontoian 17:30ean Pilota partidak izango da. Lehenengo partida herriko pilotarien esku izango da eta bigarrenean herriko Axier Arteaga eta Mikel Elola bikotea, Mikel Goñi eta Aitor Gorrotxategiren aurka. Tikitak salgai izango dira abenduaren 10a arte Ilargi, Artizar, Trumoi eta Insausti tabernetan.

Korrikaren materiala
Martxoaren 19tik 29ra egingo da 2015ean Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetean.

Gure Esku Dago bilera
Hurrengo asteartean, hilak 9, 19:00etan, Villa Mirentxun Gure Esku Dagoko Tutoreen bigarren bilera egingo da. Bilera irekia izango da, eta tutore izan nahi duena zein informatzera datorrena, denak ongietorriak izango dira.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa
Danok Kide elkarteak, aurtan ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 cm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azalean parte hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da. Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 19 eta 20a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 28an sari banaketa egingo da.

Eskutitza Euskararen Nazioarteko Eguna

“Niretzat euskara premia bat da. Nork esanen du ogia maitatzen duela? Ogia ezta maitatzen, behar izaten da. Hala pasatzen zait niri euskararekin: eztut maitatzen, behar izaten dut”. Gabriel Aresti

Euskal gizarteak argiro erakusten du, eguneroko ibilbidean, sendo bezain irmoa dela euskara biziberritzeko hartua duen erabakia. Milaka dira, adibidez, heldutan euskara ikasteko urratsa ematen dutenak. Nagusi dira, eta gero eta nagusiago, seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza hautatzen dutenak, askotan haiek euskara menderatzen ez dutenean ere. Gero eta gehiago hazten ari da euskal hiztunen kopurua, gero eta gizarte elebidunagoa osatzen ari gara. Gero eta eremu gehiagotan dugu euskara ikusgai eta entzungai. Gero eta biziagoa dugu euskara, gero eta bizikidetzarako baliagarriagoa.

Txalotzeko modukoa da, euskal gizartearen jarrera emankorra. Eta txalotzekoa da, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeek, bakoitzak bere eremuan, azken hogeita hamar urteotan egin duten lana, euskara biziberritzeko ahaleginean.

Euskararen Nazioarteko Eguna une egoikia da euskararekin dugun konpromisoa berretsi eta zabaltzeko. Eta euskara bera lau haizetara zabal dadin, euskara gero eta gehiago, gero eta gauza gehiagotarako, gero eta toki gehiagotan erabiltzekoa dugu konpromisorik funtsezkoena. Euskara erabili. Berriz ere erabili. Eta behin eta berriro erabili. Horixe da gure hizkuntzari benetako amasa emateko modurik seguru eta eraginkorrena.

Eta, jakina, EAJ-PNVk politikagintzaren

eremutik euskal gizarte osoari luzatzen dion gogoeta honetan ez dugu geure burua eginkizunetatik baztertzen. Aitzitik, geure herriki-deei euskara erabiltzeko gonbita luzatzeaz bat, geure buruari gonbita ez, baizik eta benetako konpromiso praktikoa exijitzen diogu, ezinbestez. Alderdiaren izenean gizarte berdinkideago eta kohesionatuago baten aldeko politikagintzan ari garenok ezin baitugu inolaz ere euskararen aurrerabidean oztopo gertatu; ezin baitugu inolaz ere euskara sustatzearen aldeko politika baten predikatzailerik huts izan, aldi berean euskal hiztun gisa ahal dugun guztietan jokatu ezean. Barkaezina litzateke aldarrikapen hutsaletan geratzea. Eta guk ez dugu halakorik egingo.

Eta politikagintzaren eremutik atera gabe, garbi dugu ez dugula euskara sekula erabiliko abantaila politikorik ateratzeko. Izan ere, eta Mitxelena beti bezain zuhurki gaztigatu zigunez, “euskara ahulegia baita armatzat hartzeko”. Aukera-berdintasuna nahi dugu euskararentzat. Horrela bakarrik eraiki baitaiteke, gurean, elebitasun gero eta orekatuago batean bizikidetzaren armoniatsuan aurrera doan gizarte bat. Eta hori da gure helburua, euskara sustatzeko politikak bultzatzerakoan. Denon artean, denok garelako ezinbestekoak euskara biziberritzeko ahaleginean. Ahalik eta adostasun zabalenean, horixe baita hizkuntza politika iraunkor edo sostenibile baten giltza. Arrakastaren eta etorkizunaren giltza. Euskararen erabilera etengabe indartzeko ezinbesteko gakoa. Lau haizetara esan dezagun: euskaraz egiten dut, euskara behar dudalako! @borisnogales EAJ zinegotzia

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

'Txo' mikmak txikiaren abenturak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen lan berria aurkeztuko dute gaur Durangon

Durangoko Azokak ireki ditu ateak, urtero bezala. Hainbat liburu, disko eta gunez josita egongo da Durango egunotan. Lan guzti horien artean egongo da Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen azkena ere: 'Txo, mikmak txikia' du izena. Gaur bertan aurkeztuko dute hiru pailazoen lan hori, 17:00etan, 'Saguganbara' gunean. Lan berria eskuratu nahi duen orok Katxiporretak azokan daukan gunean edukiko du aukera, gaurtik astelehenera arte.

TXINTXARRI

Pasaiako 'Albaola' ontzian dago oinarrituta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen lan berria. Ontziola horretan ari dira eraikitzen San Juan izeneko itsasontziaren erreplika, Donostia 2016 kultur egitasmoko ikurretako bat izango dena.

Itsasontzi hori da herriko pailazoen azken laneko protagonistetako bat, 'mikmak' tribukoa den Txo izeneko gaztetxoarekin batera. Itsasoaren beste aldetik etorri da Txo, eta aitona Rokeren laguntzaz, mundua aldatzen saiatuko da. Horretarako, aitona Roke arotza dela baliatuz, San Juan izeneko ontzia eraiki eta itsaso zabalean zehar nabigatuko

dute hainbat arazori aurre egin eta mundua aldatzeko.

Plastikoz beteta dago itsasoa, eta gaixo dagoen balea bat iritsi berri da hondartzara. Horiek dira Txo gazteak eta aitona Rokek konpondu beharko dituzten arazoetako batzuk. San Juan ontzian nabigatuz, itsasoa zeharkatuko dute enbata guztien gainetik.

Arrantzale euskaldunak Ternuara joaten ziren arrantzara, orain dela hainbat mende; harremanak izan zituzten 'mikmak'-ekin. Tribu horretakoa da Txo gaztetxoaren ere.

Xumelaren parte hartzea

Xabier Zabala musikariak konposatu ditu 'Txo, mikmak txikia' laneko abesti gehienak, hainbat artista eta musikarire-



Durangoko Azokan euskarazko produktuen eskaintza zabala aurkitzeaz gain, kultur ekitaldi andana izango da.

kin elkarlanean. Herriko 'Xumela' abesbatzak berak ere hartu du parte hiru abestitan. Andoingo Garate Studioan egin zituzten grabaketa lanak; urri amaierarako grabatuta zeukaten jada disko berri hori.

Guztira 19 abesti daude entzungai lan berrian, eta beste hainbeste ipuin ere topatuko dituzte 'Txo, mikmak txikia' erosten dutenek. Lan berria eskuratu nahi dute-


nek Durangoko Azokan izango dute aukera, gaurtik astelehenera bitartean.

Euskalgintzaren topaleku

Pirritx, Porrotx eta Marimotots euren lan berria aurkeztuko dute gaur bertan, Durangoko Azokako 'Saguganbara' gunean. Arratsaldeko bostetatik seietara aurkeztuko dute 'Txo, mikmak txikia' herriko pailazoen.

Gaurtik astelehenera bitar-

tean, Durango euskalgintzaren topagune bilakatuko da. Lau egunetan, kultur eskaintza zabala egongo da 49. Azokaren egitarauaren baitan. Zortzi gune izango dira aurretik eta bertan lekua izango dute musika emanaldiek, bideo proiektzioek edota irakurraldiek besteak beste. Urtero bezala bisitariak, musika talde eta idazleen azken nobedadeak bertan aurkituko dituzte.



argiaren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)

**ABENDUAK 20,
LARUNBATA**

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak:

Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako:

☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIaren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

argia

Laguntzaileak

Kilometroak
2015

Udaregi
IKASTOLA

ikastolenkartea

Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia